


[AKTUALITATEA](#) / [HERRI UNIBERTSITATEA](#)

# Gasteizko campusean izango da aurtengo Herri Unibertsitate nazionala, martxoaren 16tik 17ra

Aurten ere, "zailtasunak zailtasun", Herri Unibertsitate nazionala izango dela baieztatu du ikasle mugimenduak.

Bi egunetarako egitaraua aurkeztu dute jada, hitzaldi, mahai-inguru zein kultur jardurekin. Gonbidatuen artean izango dira, besteak beste, Ekida kultur ekimen sozialista, Itaia, Herrialde Katalanetako SEPC ikasle sindikatua zein Arran gazte antolakundea, Miren Etxezarreta ekonomialaria eta Juan Iñigo Carrera pentsalari argentinarra.

**GEDAR**

Argazkia: Ecuador Etxea

2021/03/09 11:03

Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Gasteizko (Araba) campusean egingo dute 2021eko Herri Unibertsitate nazionala, martxoaren 16tik 17ra bitartean. Ikasle mugimenduak azaldu duenez, "oztopo eta zailtasunak ugariak izan dira" oraingoan, baina hala ere, urteroko ekimenari helduko diote ehunka ikaslek. Antolatzaileen esanetan, "jakintzaren hazia ereitea eta ezagutza hedatzea" izanen da egitasmoaren xedea.

Deialdia zabalduta eta egun gutxira argitaratu du Herri Unibertsitateak egitarau osoa. Eragile ugari hartuko dute parte; tartean, sortu berri den **Ekida kultur ekimen sozialista** aurkeztuko dute, **Itaiak** "ekarpen politiko bat" egingo dio emakumearen auziari, eta mahai-ingurua egingo dute Herrialde Katalanetako **SEPC ikasle sindikatuak eta Ikasle Abertzaleak**, "ikasle mugimenduaren eta bere erronken" inguruan jarduteko. **Gazte Koordinadora Sozialistak, Arranek, Castellak eta Jaleok**, berriz, gazte antolakundeen nazioarteko mahai-ingurua osatuko dute.

Antolakundeek ez ezik, hainbat norbanakok ere emango dituzte hitzaldiak aurtengo Herri Unibertsitatean; hala nola, **Miren Etxezarreta** ekonomialariak "egungo kapitalismoaren joerez" hitz egingo du; **Juan Iñigo Carrera** pentsalari marxista argentinarrak "kapital harremana eta langile klasea subjektu iraultzaile gisa" aztertuko ditu; eta **Carmen Parejo** kazetaria Myanmarreko estatu-kolpearen inguruan arituko da.



NAZIONALA	
<b>Gasteizko campusean Martxoak 16</b>	18:00-20:00
10:30-12:00	MANIFESTUA: Ikasitza EKIDaren eskutik
<i>Las aportaciones de Engels al Materialismo Histórico</i> Francisco Erico Sebares	<b>Martxoak 17</b>
<i>EKIDA kultur ekimen sozialistaren aurkezpena</i>	10:30-12:00
<i>La Jerga de la posmodernidad. Ecos de una derrota</i> Cati Marx	<i>Reformismo de ayer y de hoy: la lucha de la socialdemocracia por salvar al capitalismo de sus propias contradicciones</i> Marta del Rosal
<i>Algunas tendencias en el capitalismo actual</i> Miren Etxezarreta	<i>Iraultzarako beste bide bat: 1970eko hamarkadako esker errepublikanoaren iraultza</i>
12:30-14:00	12:30-14:00
<i>Euskal iraultzaileak: T. Manzon, Tallardegi, Eusebio Osa eta Beiza</i> Pablo Sotomayor	<i>Gazte antolakundearen mahai-ingurua</i> G13, Arran, Castellak eta Jaleok
<i>Kapital harremana eta langile klasea subjektu iraultzaile gisa</i> Juan Iñigo Carrera	<i>Ikasle mugimenduz eta bere erronkez</i> Ikasle Abertzaleak eta SEPC

## EZ DAGO IRUZKINIK

## GEHIAGO



### IKASLE ABERTZALEAK

### Selektibitatearen kontra protesta egin du IAK



## IKASLE ABERTZALEAK

### Selektibitatearen kontra protesta egitera deitu du berriz IAK



## EUSKARA

### Euskal Filologia ezagutza arlo gisa desagerrarazi nahi du Espainiako Gobernuak



## KONTROL SOZIALA

### Aurpegiaren errekonozimendurako kamerak jarri dituzte Nafarroako Unibertsitate Publikoan



## ERREPRESIOA

### Ikasleko segurtasun aurrekonturik handiena duen unibertsitatea da EHU Espainiako Estatu mailan



### IKASLE ABERTZALEAK

**Azken grebari begira jasandako askatasun politikoaren urraketak salatuko dituzte gaur EHUko campusetan**

## AKTUALITATEA



### JAZARPEN POLITIKOA

**Beto politikoari aurre egin eta txosna bat jarri dute Gasteizko GKS eta Etxebizitza Sindikatuak**



### INDARKERIA MATXISTA

**Sei eraso sexista salatu dira Euskal Herrian azken astean**



#### LANGILE KONTROLPEKO ESPAZIOAK

### Zestoako Gaztetxea husteko prozedurari ekin dio berriz Elizak



#### POLIZIA-INDARRAK

### Ertzaintzaren sindikatuek neurriak eskatu dituzte ustezko "sistemaren aurkako mugimenduentzat"



#### GAZTE TOPAGUNE SOZIALISTA

### Kalean da Gazte Topagune Sozialistaren aurtengo abestia: 'Haustura'



#### MIGRAZIOA

### Europar Batasunetik kanpoko langile migratzaileen gaitzualifikazio tasa bertan jaiotakoena bikoitza da Espainiako Estatuan

# Arteka hilero jaso web-orrian harpidetuz

#40 / 2023 EKAINA



## Helbideak

### Kontaktua

harremanak@gedar.eus

### Erredakzioa

erredakzioa@gedar.eus

### Kolaborazioak

kolaborazioak@gedar.eus

### Harpidetza

harpidetzak@gedar.eus

## Sarean

TWITTER

INSTAGRAM

TIKTOK

FACEBOOK

YOUTUBE

## Legea

CC BY SA

Cookieak

Lege informazioa

🔍 Bilatu